

# B

BARREN

TOKIKOM



# Inoxentzioren mundua

**ENJOY SUMMER**  
jolasen bitartez eta dibertitzen  
zaren bitartean,  
ikasi Ingelesa **ELGOIBARRAN**

**ILS**  
Industry Language Services  
Informazioa, matrikula eta ordutegia  
943 744 040  
www.ils.es  
BBN grade



5 urtetik aurrera, ekainaren 28tik uztailaren 30era bitartean, goizeko 10etatik 13etara.  
Ingelesa modu naturalean ikasi aire librean, jokoan, abestien, ipuinen eta eskulanean bitartez

## 2010/2011 IKASTURTERAKO MATRIKULA IREKIA

HAURRAK ETA GAZTEAK – INGELESA, FRANTSESA ETA ALEMANA

HAURRAK 4 urtetik aurrera   GAZTEAK 12 urtetik aurrera

Hizkuntzan erabat barneratzekoak, %100 ingelesez, frantsesez edo alemanez.  
Cambridge azterketen prestakuntza: KET, PET eta FIRST CERTIFICATE

# LAGUNAK KOLTXOI DENDA - TEXTIL HOGAR

## ZATOZ GURE ERAKUSKETA BERRIA IKUSTERA!



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



## Bakarrak eta errealak

Kezkatzen nauen zerbait dago. Liburuak, edo agian haietan kontatzen diren istorioak. Edozein ama esnatzen da gauerdian bere seme-alabari gustuko duen heroiaren liburua irakurtzera, bukaera ona duen istorio bat, haurrak lo sakonean murgiltzen dituzten horietakoak. Guzti horretan kezkatzen nauen zerbait dago, ordea. Liburuak, edo agian haietan kontatzen diren istorioak. Ezpatekin zaldi gainean ibiltzen diren gizon gihartsuei buruzko istorioak dira. Mundua dragoi eta pizti beldurgarrien erreinutik salbatzeko prest dauden gizonenak. Istorio horiekin lokartzen dira gure umeak. Bukaera zoragarria izaten dute guztiek, pozez eta irribarrez jositako bukaera. Ez dira heroi horiek, ordea, gure liburuetan agertzea merezi dutenak. Pertsona normalak nahi ditut, arruntak, bestelako boteririk gabeak. Zama guztia zaldi gainean eraman beharrean oinez dabiltzanak. Ez dute ezpaten beharrik, borondate ona dute soilik. Ez dituzte piztiak akabatzen, biziak salbatzen dituzte. Lurralde behartsuenetan bizi diren pertsonak dira, beti besteei laguntzeko prest daudenak. Gosea, gerrateak eta gaixotasunak dira gure erreinuko piztiak, milaka pertsona errugabe arriskuan jartzeko ahalmena dutenak. Gure heroiak, berriz, irtenbide hobeagoak eman eta zutik eta indartsu jarraitzen dutenak dira.

Istorio horiek dira gure gazteek entzun behar lituzketenak, benetakoak, lokartu beharrean bat-batean esnatzen dituztenak. "X taldeko" heroiak ez dutela mundua salbatzen, benetako pertsonak direla bidea poliki-poliki eginez munduaren bihotzera heltzen direnak. Bukaera zorionsua ez duen istorioa da hori, oraindik idazteke dagoen liburuaren mamia hain zuzen ere. Itzaleko heroiak dira, bakarrak eta errealak.

Jairo Berbel



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetari:  
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**"Gosea, gerrateak eta gaixotasunak  
dira gure erreinuko piztiak"**

**BETE DUZU ALBISTEAK  
E-POSTAZ  
JASOTZEKO HARPIDETZA?**

**EGUNERO  
BIZPAHIRU  
ALBISTE JASOKO  
DITUZU!**

**www.elgoiBARREN.net**

Albisteak ePostaz jasotzeko

Izena

ePosta

Harpidetu

Harpidetza eten

Harpidetul

**Egin  
klik  
eta  
ikusiko  
duzu**

# ANDONI EGAÑA

PAILAZOA

“Lotsaren kontrako arma  
izan da niretzat  
umorea urte askoan”

Andoni Egaña kalean, eta Inoxentzio oholtza gainean. Bi pertsona gorputz bakarrean. Andoni Egañarekin batu da kazetaria tabernako barran, baina biak ditu zain. Davidoff txiki bat eskatu du Andonik, eta bazter batera zuzendu da. Lotsatia eta hitz gutxikoa dela diote haren gertukoek, baina kosta egiten da sinistea. Inoxentzio azaleratzen da Andoniren berba eta keinuetan, Inoxentzio pailazoa, eta zaila da nor den nor bereiztea. Bistan da elkar miresten dutela eta konfiantza osoa dutela elkarrengan. “Inoxentziok ez dit sekula hutsik egin”, dio Andonik. Mendaroko Andoni Egaña.

Noizkoa duzu antzerkirako zaletasuna?

Antzerkiaren mundua beti gustatu izan zait, baina gidioia buruz ikasi behar horrek hartzen ninduen estu, eta, horregatik, mimoen mundua probatzea pentsatu nuen. Interneten begira hasi nintzen, eta Bilbon *clown*-en hastapenari buruzko ikastaro bat zegoela ikusi nuen. Mimoekin eta pantomimarekin lotzen nuen nik *clown*-a, baina zer zen jakin gabe joan nintzen ikastarora. 2003an izan zen. Probatu nuen eta izugarri gustatu zitzaidan. Filmeetan esaten duten moduan, bizitza aldatu zidan ikastaro hark. Aspaldian nenbilen zerbaiten bila, zer zen ere jakin gabe, eta hantxe topatu nuen. Oihulari Klowneko Virginia Imazek eman zuen ikastaroa, eta garbi esan dezaket bera izan dela nire pailazoaren ama. Sasoi hartan Oihulari Klownekoak baserri-tailer antzeko bat ari ziren egiten Bergaran, eta zortea izan nuen, baserrian laguntzearen truke bestela nekez egin ahal izango nituen ikastaro asko egiteko aukera izan nuen haiekin. Poliki-poliki, ikastaroak egin ahala, euren hiru ikuskitzuntan parte hartzeko aukera eskaini zidaten: *Alfonbra magikoa* eta *Mamu txikiak* umeentzako ikuskizunean, eta *Dena kontrolpean* helduegoentzako antzezlanean. Kale antzerkia ere egin dut haiekin, eta egia esan, zorretan nago Oihulari Klown-ekin.



*Clown* hitza erabiltzen duzu beti. Pailazoa, *clown*-a... zer da bat, eta zer bestea?

*Clown*-a eta pailazoa gauza bera dira. Sarri pentsatzen dugu sudur gorridunak bakarrik direla pailazoak, baina ez. Tricyclekoak ere pailazoak dira. Bada beste kontu bat ere. Pailazo hitza gutxiespenez erabiltzen dugu sarri. Norbait inguruko beste norbaitengatik “hori pailazoa da” esaten entzuten dudanean zera erantzuten diot nik: “Pailazoa hori? Pailazoa neu naiz. Hobe bai hori pailazoa balitz”. Nik denak animatuko nituzke pailazo izaten ikasteko lehenengo ikastaro hori egitera. Osasungarria da. Gero batzuk sakonduko dute, eta besteek, ez, baina nik uste ikastaro horrek denei egingo liekeela on. **Umeeekin edo helduekin sentitzen zara erosoago?**

Helduekin, beharbada.

**Gaur egungo egoeran ez du ematen erraza izan behar denik helduei barre eginaraztea.**

Izan daiteke, bai, baina helduek behar handiagoa dute barre egiteko, eta horrek gehiago betetzen nau. Gainera, gu ikustera datorren pertsona heldua bere gogoz dator, eta umea, berriz, gurasoek behartuta, neurri batean. Behartuta ez bada ere, gurasoek eraman du-

telako dago han, eta hori batzuetan igartzen da. Nolanahi ere, bai, ume bati barre eragitea errazagoa da. Hori bai, heldu bat tripako min ez lagatzea handia da, eta oso esker onekoa.

### **Inoxentzio zara oholiza gainean. Nolako da bera?**

Jendeak oso gogoko du nire pertsonaia. Inoxentzio pertsona handia da, eta maitagarria oso. Pertsonaia atsegina da, eta nik abantaila hori daukat. Ikusteaz batera barrezka hasten dira ikusleak, eta "ja-jaja, zer egingo ote du honek?" esanez moduan sumatzen dituzu.

### **Zerk bereizten ditu pailazoa eta bestelako antzezle bat?**

Gurea inprobisazioa da asko. Beste zenbait antzezlerekin alderatuz gero, *clown*-ak badu bere-berea den ezaugarri bat: *clown*-ak publikoaren kontzientzia dauka. Antzezle batek aurrez ikasitakoa botako du edozeinen aurrean, eta guk harreman estuagoa daukagu ikuslearekin. Aurrean dugunaren arabera, batera edo bestera jokatu dezakegu. Gaiak, berriz, eguneroko gaiak izaten dira. Edozein gaik balio du, pare bat buelta ematen jakinez gero. Umorea ez da beti bat, gainera. Gerta daiteke hemen barrez lehertaraztea jendea, eta Andaluzian inork ez ulertzea. Emakumezkoen eta gizonezkoen umorea ere ezberdina da, eta horrekin jokatu behar da. Virginia Imazek, esate baterako, askotan emakumeen artean arrakasta handiagoa izaten du, haien erreferenteak erabiltzen dituelako umorea egiteko.

### **Aurrez prestatutakoa antzeztea bera ere ez da erraza, eta bat-batean jardute hori... beldurrik izaten duzu?**

Ez. Zuk kontuan hartu oholizara igoten dena ez naizela ni, Inoxentzio baizik. Virginiak *eskizofrenia zoriontsua* deitzen dio horri, eta hala da. Nik konfiantza osoa daukat Inoxentziorengan. Badaikit asmatuko duela. Nik pentsatuko banu "hau egin eta barre egingo dute", ziur ez nukeela asmatuko. Antzezle bat aguazila denean, aguazila da eta listo. Nire kasuan, baina, ezberdina da. Nire kasuan Inoxentzio da, aguazil izatera jolasten, eta bere ustetan, gainera, aguazil onena izango da, *clown*-ak asko duelako umetik.

### **Zer esan nahi duzu horrekin?**

*Clown*-a aguazilik onena izango dela beti. Aguazil onena, tabernari onena... Ume batek egiten duen dena egiten du ondo, bere ustetan. *Clown*-ak ere bai. *Clown*-ak, gainera, sentitzen duena adierazten du beti. Aulki bat bota eta jendeak barre egiten badu, ondoan dituen denak botako ditu Inoxentziok, poza adierazteko, eta jendeak barrerik egiten ez badu, berriz, tristura agertuko du. Harreman zuzena daukagu hartzaileekin, eta uneoro kontziente gara hor daudela.

### **Inoxentziok zer du Andoni Egañarena?**

Gauza asko. Nire gorputza dauka, nire ahotsa, eta nire jakituria ere bai. Nik dakidan dena daki Inoxentziok. Eskarmentu handia baldin badaukazu oholiza gainean, joka dezakezu zuk inoiz jokatuko ez zenu-

keen moduan, baina nik, normalean, nire barrutik irteten dena egiten dut. Gai guztiak nire galbahetik pasatzen ditut.

### **Zure gertukoek aitortu digute lotsati xamarra zarela. Nondik ateratzen duzu oholizara igotzeko ausardia hori?**

Bai, banaiz lotsatia. Koadrilan gaudenean, esaterako, oso gutxitan ikusiko nauzu nire iritzia ematen edo zurekin orain ari naizen moduan hizketan. Bakarka, aldiz, sekulako soka daukat, ikusten duzun moduan. Nik garai batean sarri egiten nuen *playback*-a eta orduan, oholizara igoten nintzenean, ez

nintzen sekula guztiz eroso sentitzen, disfrazatuta egon arren. *Clown* papelean, baina, izugarri disfrutatzen dut. Jendearekin harreman hori izatea handia da. Maitasun hori... *buff!* ikaragarria da. Baina, jakina, lan pertsonal handia dago hor atzean, e? Nik ikastaroetan-eta zenbat izerdi bota ote dut! Jende aurrera irten eta extralurtarrarena egin behar! Ez zen erraza izaten. Tripa dantzan izaten nuen, eta hasi aurretik, izerditan! Eginak erakusten du. Bizitza entrenamendu saio bat da, eta beldur horiek geuk asmatutakoak dira. Aitortu beharra daukat, hala ere, plaza gizona ere banaizela. Pilotan jokatzen ari naizenean, adibidez, frontoia beteta badago hazi egiten naiz. Kontraesana ematen du, baina hala da.

**“Gauza guztietan onak izatera kondentuta gaude, eta horrek dakar porrotaren sentsazio hori”**



**Pailazo izatea bizitzeko filosofia bat dela esan izan duzue.**

Hala da. Porrot egiteko beldur hori edo lotsagarri gelditzeko ikara hori, beste gauza asko bezala, gizarteak sortutakoa da. Mutil batek ezin du inoiz negarrik egin, eta neska bat ezin da haserretu. Badago hori baino gezur handiagorik? Halakotan, gure gizartean neskaren haserrea negarra bihurtzen dugu, eta mutilaren negarra, haserrea. Esterotipoekin hausten du *clown*-ak. Emozioei dagokionean, *clown*-a ume bat da. Umearen izate hori, baina, etengabe fintzen dugu guraizeekin. *Castra-educu* esaten dio Virginiak horri. “Ez jarri lurrean, ez egin hori, ez zaratik egin...ez, ez eta ez”. Berez, umeak ez du ezetzik ezagutzen, eta *clown*-ak ere ez. Erakutsi dizutena ahaztu eta berezkoa zenuenera bueltatu. Horixe da *clown*-aren filosofia. Hori bai, jende artean bizi gara, eta arau batzuk derrigorrean errespetatu behar dira, baina formalidade hutseko arau horiek baztertu egin behar dira.

**Zuen etxean izan da aurrez antzerkirako zaletasunik?**

Arreba ibili zen Goaz taldean, baina ez, bestela ezer ez. Gure ama sinistu ezinda dago oraindik. Ni lehenengoz 19 urterekin irten nintzen kanpora, ikas bidaian. Aurretik Aubixara ere ez nintzen sekula joan. Ez Aubixara, ez dantzara, ez... Ez nintzen ni aurrean ibili zalea. *jajaja*.

**Zer eman dizu zuri mundu honetan sartzeak?**

Munduaren beste ikuspegi bat. Egia da lehen ere oso baikorra nintzela ni, baina balore asko lortu ditut. Bizitzan jarraitu beharreko bidea zein den erakutsi dit. Ez dakit iritsiko naizen, nora iritsi behar den ere ez dakidalako, baina helbururik ere ez dut jarri, helbururik jarri ezean sekula ezin delako galdu.

**Zure kabuz ere hasi zara orain.**

Oihulari Klownekin kolaboratzaile moduan ari naiz, baina nire ikuskizun bat ere izan nahi dut, bai. Hori bai, bietan pertsonaia bera naiz: Inoxentzio. Ordu eta erdiko ikuskizun bat badaukat, eta bide hori sakondu nahi nuke. Ni lanean nabil tailerlean, eta ez da erraza, baina orain arte ondo moldatu naiz, eta nahi neuke Gaztetxeetara eta elkarteetara joan eta bide hori lantzea.

**Zure lehenengo ikuskizuna non izan zen? Zer oroitzapen dituzu?**

Gernikan izan zen. Ostegunetan ekitaldi bereziak antolatzen hasi ziren han, eta deitu egin zidaten. Eta ezjakintasuna ausarta denez... han joan nintzen. Itzela izan zen. Oroitzapen politak ditut. Ni oholtzara irteten naizenean ez naiz jendeari barre eragitera irteten, neuk ondo pasatze-  
ra baizik, eta egun hartan ikaragarri disfrutatu nuen. Nik ondo pasatzen badut, jendeak ere ondo pasatzen du. Hori tematikoa da.

**Azkenaldian sarri ikusi zaitugu Mendaron.**

**Erraza da norbere jaioterrian pailazo izatea?**

Pailazo izatea ez dakit, baina jende aurrera irtetea, bai-edo. Komatxo artean, epaitua sentitzen zara. Zure iragana ezagutzen dute denek, eta horren arabera ikusten zaituzte askok. Egia da, paso

egiten dudala nik. Zer ez ote dute esan niri buruz! *jajaja*. Hala ere, Gaztetxean aritu naizen azkeneko honetan ere jendea oso gustura irten da. Egia da, hala ere, nik neuk izan nituela *glub* momentuak ere. Ez nintzen Andoni, baina Inoxentzio ere ez. Erdibidean gelditu nintzen une batzuetan, linboan moduan. Egun txarra izango nuen, edo batek daki. Egun guztiak ez dira berdinak izaten eta...

**Zer da zuretzako umorea?**

Lotsaren kontrako arma bat izan da niretzat umorea urte askoan. Ez naiz behartuta aritu barre eginarazten, berezkoa dudalako hori, baina bai, umorea lagungarri egin zait askotan. Txisteak kontatzen eskasa naiz, gustatu ere ez zaidalako egiten umore hori, baina eguneroko gauzei buelta ematea gustatzen zait. Bat-bateko umorea gustatzen zait. Ironia, baina inor gutxiesten ez duen umorea. Nik jende artetik norbait ateratzen dudanean, adibidez, asko zaintzen dut hori.

**Sari jotzen da, baina, umore mota horretara. Ez zaizu iruditzen?**

Bai, bai. Umore erraza da. Ikuskizun batera baldin bazoaz, eta bat-batean oholtzara igorarazten bazaituzte normala da gaizki pasatzea. Bat igo, eta gainerakoak lasaitu egiten dira, eurek ez direlako igo behar. Pailazoak jakin behar du oholtza gainean botere handia daukala, eta distantzia mantendu beharra daukala ikusleekiko. Ni ikusle batengana lar hurbiltzen banaiz, beldurtu egin nezake. Kontuz ibili beharra dago umorea egiteko modu erraz horrekin. Umore erraza da, baina errespetu gabea. Inoiz ez ditut ulertu barre eginarazteko beste norbait barre-garri laga beharra daukaten horiek.

**Pedagogo ezagun bati entzuna da gero eta bizkorrago garatzen dugula barre-garri gelditzeko beldurra. Zuk noiz sentitu duzu?**

Nik uste dut hori ez dudala sekula izan. Lekuz kanpo protagonista bihurtzea ez zait sekula gustatu, baina barre-garri gelditzeak ez nau inoiz beldurtu. Baina, bai, pedagogo horrek zioena hala da. Lehen libreago ginen umeak. Orain lotuago daude, eta aurretik hartzen dituzte helduon mania, beldur eta gabezia horiek guztiak. Gizarte honetako kontuak dira. Eraginkorrak izatera behartzen gaituzte. Gauza guztietan onak izatera kondenatuta gaude, eta horrek dakar porrotaren sentsazio hori.

Ainara Argoitia





**Autopistara sartzeko errotondan belarra oso luze dago:** "Autopistara sartzeko errotondan belarra oso luze dago, eta ez da errepidea ondo ikusten. Elgoibartik Debarako norabidean, ez da ikusten errotonda barruan autorik dagoen ala ez, eta hori oso arrisku-tsua da. Udaberrian belarra asko hazten da, eta sarrigo moztu beharra dago. Eskertuko genuke, ezer gertatu baino lehen, mozte".



**Txalo bat Kirol Patronatuko zuzendariari, spinning-erako bizikleta berriak ekartzeagatik:** "Kiroldegiko zuzendaria den Ramon Mujika txalotu nahi dut. Astearte batean joan nintzen berarengana, spinning gelako bizikletak, nire ustez, berriitu egin behar zirela esatera, eta ostiralerako punta-puntako zazpi bizikleta berri jarri zituen. Eskertzekoa, benetan, kiroldegiko zuzendariaren jarra eta prestutasuna. Eskerrik asko, eta segi dezagun denon artean Elgoibarko kirol instalakuntzak hobetzen".

Zien kekek, galderak edo txalokak bidaltzeko:  
[barrene@elgoibarkoizarra.com](mailto:barrene@elgoibarkoizarra.com)  
 948-74 41 12

**LARRAÑAGA**  
 AUTOESKOLA

Santa Ana kalea, 7  
 20870 Elgoibar  
 Tel.: 943 741 011



**18 URTE BETE AURRETIK  
 AZTERKETA TEORIKOA  
 GAINDITZEKO AUKERA**

**ZATOZ INFORMAZIO ESKE!**

- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ
- NAHI IZANEZ GERO, ORDENAGAILU BIDEZ TEST EGITEKO AUKERA EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ
- SENTZIBILIZAZIO ETA BIDE BERREZIKETAKO IKASTAROAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Arnaldo askatu plataforma sortu da

Gure herriari zein Euskal Herriari etorkizunik onena opa diogulako, Elgoibarko adin, sektore eta ideia ezberdinetako hainbat pertsonak osatzen dugu, edozein talde politikoren menpekotasunetik libre dagoen eta nahi duten guztientzat zabalik dagoen plataforma hau.

Honako haueetan laburbildu daitezke gure helburuak: gizartean bakearen aldeko jarrerak bultzatzea; Elgoibarren bezala, Euskal Herrian ere politikari aukera ematea, eta, Arnaldo eta haren senideei, berriz ere, gure hurbiltasuna adieraztea, haren askatasuna eskatuz.

Adi egon eta parte hartu, laster bultzatuko ditugun ekintzetan. Horien artean, maiatzaren 15ean, 12:00etan, Elgoibarko plazan egingo den plataformaren aurkezpena.

**Politika askatu,  
Arnaldo askatu plataforma** ☺

### “S.O.S. HAITI” kanpaina

Jakinaren ganean zaudeten bezala, otsailaren 5, 6 eta 7an, 2.300 kilo janari bildu genituen. Udalaren laguntzari esker, otsailaren 9an janari horiek Olaberriako pabiloi handi batera eraman genituen, han jarri zutelako biltegiatiko bat. Otsailaren 27an, bi kontenedore prestatu zituzten Olaberriari, eta beste hiru, Irunen, denak itsasoz Jacmelera (Haiti) bidaltzeko, han dauden Merzedaria Ahizpei hain justu ere. Haiek izango baitira behartsuei laguntza hori banatzeko arduradunak. Martxoaren 27an beste bi kontenedore prestatu genituen.

Diru laguntzari buruz, 5.500 euro bildu genituela esan behar dugu. Diru hori Sor M<sup>a</sup> Pilar Hurtado de Sarachori eta Sor Manuela Rubiori entregatu genien Donostian otsailaren 27an, bi horiek di-relako Karidadeko Alaben COVIDE-AM-VEko eta Donostiako lurralde kanonikorearen arduradunak. Esan zigutenez, diru hori euren ardurapean dituzten eskola eta umezurtz etxeak eraikitzeko erabiliko dute.

Otsailaren 20an, Sor M<sup>a</sup> Teresa Tapiak Haititik bidalitako korreo elektronikoa jaso genuen, eta zera adierazten zigen: “Dakigunez, ez da gure zentroetako umerik hil”.

Aurrerantzean ere, eta ahal den neurrian, Haiti berreraikitzen laguntzea da gure asmoa, hango biztanleek bizimodu duina lor dezaten. Horretarako, irekita mantenduko dugu Euskadiko Kutxan (Caja Laboral) daukagun kontua, diru laguntza eman nahi duzuenontzako. Diru laguntza ematerakoan, beti ere, “Haitirako laguntza” dela aipatu behar da. Behin eta berriz, elgoibartar guztien eskuzabaltasuna eskertu nahi dugu.

**Parrokiako misio taldea** ☺

### Bittori Arizmendiartaren sendiak, esker onez

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiegu publikoki San Lazaro egoitzako sendagileei, erizainei, laguntzaileei, sukaldeko langileei eta garbitzaileei, Bittoriri eskainitako arretagatik. Pertsonen bizitza duin egitea ez da lan erraza, eta Bittori duintasun osoz artatu zuten

San Lazaro egoitzan. Era berean, ez ditugu ahaztu nahi Julita eta Lurdes, Bittoriren lagunak. Gure bihotzean izango dira betiko. Tolosako sendi honek garbi dauka pertsona langileak badirela. Langileak, eta adinekoekin solidarioak eta adeitsuak direnak.

**Jesus Mari** ☺

# Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:





Hutsegite baten ondorioz, joan zen asteko Zozoak Beleari atalean errepikatuta argitaratu genuen Andres Alberdiren testua, eta eman gabe laga genuen Angel Ugartebururena. Gaurko alean behar bezala argitaratu ditugu bi testuok. Gure barkamena kolaboratzaileei eta irakurle guztiei.



Angel Ugarteburu



Andres Alberdi

Argi jagok, Andres! Zozoak beleari ipurbetz deitzen jo-tsak beti eta besteak ere kontu beltzeekin ekin eta Txisteak eta berdekeriak idazten bajituagu, jendeak ka-

lean ere kasu. Gai serioak erabiliz gero, ostera, inork irakurri ere ez. Horregatik erabaki joat txisteak kontatzea. Jendea ez jabilk oker; barre egiteko gogoia jaukaka. Ez juek, ba, esaten barrea dela osasunaren gidari onena?

### “Txisteak eta berdekeriak idazten bajituagu, jendeak kalean ere kasu”

► Andre-gizon batzuei kalean entzuna hurrengo hau: - Bai, Donostian daukagu erosi berri etxetxo bat- esan jok gizonak eta andreak jarraitu: - Bai, eta argi daukagu biotako bat hiltzen denean ni bertara joango naizela bizitzera.

► Eskolan pasautako kontua dok hurrengoa. Bost galderako azterketa bat jarri najoan eta ikasle bik erantzun berdin-berdinak. Batean ezik, denetan asmatu biek. Batari zortzikoa eman najotsan eta besteari suspentsoa. Han jatok disgustua hartu duena, berea eta bestearen azterketak hartuta, erreklamatzera:

- Zelan da, ba, hau? Honi zortzikoa eman diozu eta niri suspentsoa, azterketa berdinean eginda? Hirugarren erantzunean jagoan kakoa. Batak “ez dakit” erantzun zuen eta besteak “nik ere ez”. Kopiatzen ere jakin egin behar.

► Bi bertsolari ospetsuren arteko jarduna, amaitzeko. Lagun eta elkarzirikatzaile zituan Pello Errota eta Txirrita. Pello ez zen 60 kilotara iristen eta Txirritak bazituen 120 inguru. Sagardotegian, mahai osoa beretzat hartuta, aurkitu jok Pellok Txirrita, eta esan: - Lasai hago, Txirrita! - Bai hi ere, nire praktetan bahengo! Bi Pello kabitzen zituan haren praktetan.



Kaskoan banitian mintzagai ziren kontu serio batzuk, baina kasu egingo diat gaurkoan. Umoretik, beraz, Angel.

Hiru pasadizo nik ere, eta hirearen bizkar-hezurrari jarraituz gainera.

► Elgoibarkoak zituan senar-emazteak, hire oso gertukoak biak, eta Lisboako taberna bateko terrazan zeudean kafea hartzen. Han non ikusten dituzten 80 bat urteko zirt eta zarteko bi amama turista, safari-jantzian, hirian zehar paseoan. Andre elgoibartarrak orduan gizonari: - Nik ere neure burua horrela ikusten dut 80 urterekin, ahizpa eta biok munduan zehar bidaiatzen. (Hirean, Angel, andreak gizonarekikoak bakarrik; honetan, senarrarenak egin zitian, alajaina!).

### “Kaskoan banitian mintzagai ziren kontu serio batzuk, baina kasu egingo diat”

► Andaluziako eskola batekoa, hurrengoa. Etsamina esku artean, gazteak. Pariseko gau-bizitza ederto asko islatu zuen Toulouse-Lautrec margolariaren izenaz galdetu maisuak, eta honela erantzun mutilaren belarri fina, eta frantseseko ahoskerari (*Tuluz-Lotrec*) ukitu andaluz beteriko txibatazioa (*tululu-tre*) ezin asmatu paperera eramaten!

► Bertsolari handi baten bi pasadizo, amaitzeko.

- Donostian, ardoz ondo betetako batek, zutik ezin joanean, aldamenetik pasatzean: - Aio, Bilintx!. Eta bertsolariak hitzetik hortzera erantzuna: - Aio, Balantx!

- Lagun batek behin burutik txapela kendu Bilintxi, eta barre egin nahian: - Oi, oi, Indalezio, hire buruak gazta zirudik, leun-leuna eta zuri-zuria zegok eta! - Ba, hireak, kanposantua ematen dik, *ilez* be-tza zegok eta.



Elgoibarko Udala



## Gazte lokalen erabilerari buruzko araudia aztertzeko eta eztabaidatzeko bilera egingo dute bihar, maiatzak 8

28 gazte lokal daude Elgoibarren, eta guztiak aztertuko ditu Udalak

**G**azte lokalen erabilerari buruzko araudia prestatu du Udalak, eta bihar egingo dute txosten hori aztertzeko eta eztabaidatzeko bilera. Batzar horretan gazteek, gurasoek, lokalen jabeek eta lokalen inguruan bizi diren herritarrek hartuko dute parte.

28 gazte lokal daude Elgoibarren, eta Udalak guztiak bisitatu ditu, arkitekto baten laguntzarekin. Lokal horiek guztiak aztertuko dituzte. Aste Santu ondorenean hasi ziren lokalek aztertzen, eta uztaierako amaitzea espero dute. Ondoren, araudia betetzen ez duten lokalek, edo zerbait hobetu beharra daukatenek, sei hilabeteko epea izango dute aldaketak egiteko. Maialen Aranguren Udaleko gazte teknikariak azaldu-takoaren arabera, aldaketak egin behar dituzten lokaletako jabeek laguntzeko prest dago Udala, "zati batean bada ere". Era berean, gazteen aldetik "jarrera ona eta parte hartzeko pres-tutasuna" aurkitu dituztela gaineratu du, teknikariak.

### Herritarren arteko harremana hobetzeko helburua

Lokalak erabiltzen dituzten gazteen eta lokal horien inguru-ko bizilagunen harremana hobetzeko helburuarekin jarri zuen martxan proiektua Udalak, iazko urtearen amaiera alde-ra. Ordutik, hiru bilera egin dituzte gazte lokalekin zerikusia duten herritarrek. Azken bileran, lehen fase horretan landuta-



ko puntuak jasotzeko akordio proposamena edo araudia egi-teko konpromisoa hartu zuen Udalak, eta hori izango da biharko bileran aztertuko dutena. Bilera Meka ikastetxean izango da, 10:00etan. Hara azaltzen diren guztiak talde txiki-tan banatuko dituzte.

## Hasi dituzte Ubitarte Gain eta San Roke arteko bidea egiteko obrak



Ubitarte Buru eta San Roke auzoa lotuko dituen bidea egiteko lanak hasi dituzte dagoeneko. Usartza SL enpre-sa arduratuko da obrak, eta lau hila-bete izango ditu lanak amaitzeko. Hortaz, atzerapenik ezean, abuztura-ko amaituta eta erabiltzeko prest egongo da bidea.

Bide berriak 200 bat metro eta bi noranzko izango ditu. Ubitarte Gain-eko babes ofizialeko etxeen eta trenbi-dearen azpitik dagoen tuneletik hasi-ko da bidea, eta batxilergoko institu-tuaren parean amaituko da.

Aparkalekuak ere egingo dituzte, ingurune horretan bota zuten enpresa zaharrak lagatako hutsunean, hain zuzen ere.

## Pertsonaia **Jesus Mari Etxeberria**




Jesus Mari Etxeberria izango da aurrerantzean jubilatuen egoitzako presidentea. 17 urteren ondoren, Iñaki Insaustik lagatako lekua beteko du, beraz, Etxeberriak. Hasieran ez zegoen inor jubilatuen egoitzako zuzendaritzan sartzeko prest, baina azkenean, zortzi lagunek osatuko dute zuzendaritza taldea. Apirilaren erdi aldera hartu zuen Etxeberriak presidente kargua, eta dagoeneko hasi da lanean: maiatzaren 13an, Logroñora joateko irteera antolatu dute, eta dagoeneko bete da autobus bat. Interesatuak jubilatuen egoitzan eman dezakete izena.

## Berbia **Merkadilloa**

Herritar bat baino gehiago joan zen atzo Plaza Txikira, merkadilloa han egongo zelakoan. Ostegunetako merkadilloa herri barrura maiatzean ekarriko zutela esan zuen Udalak. Aste honetan sartu gara maiatzean, baina Plaza Txikian atzo ez zegoen merkadillorik. Udalak jakinarazi duenez, hilabete amaierarako egingo dute leku aldaketa.

## Irudia **Istripua**

Joan zen asteko uda giroaren ostean, negua etorri da berriz ere, aste honetan. Euria eta hotza izan dira protagonista, eta horren ondorioz, istripu ugari izan dira han eta hemen. Horietako bat Meliton inguruan gertatu zen astelehen goizean. Mendarotik Eibarrerako bidean zihoan furgoneta batek irrist egin zuen, eta gidariak kontrola berreskuratzeko saiakera egin zuenean, irauli egin zen. Gidariak ez zuen zauri larririk jasan, eta bere kabuz irten zen furgoneta barrutik.



## 'Elgoibar bizi-bizixa', Udalaren marka berria

*Elgoibar bizi-bizixa* izango da Udalaren irudi marka berria, eta Udalak parte hartuko duen proiektuetan, ekitaldien promozioan zein komunikazio kanpainan guztietan azalduko da.

**elgoibar**  
biZi-biZiXa!

## Aitor Etxeberriaren obrak, Zumarragan eta Urretxun

Aitor Etxeberria mendarorak bi erakusketa jarriko ditu aldi berean Zumarragan eta Urretxun. *Paisaia pribatuak* jarri dio izenburua erakusketa bikoitz horri, eta hilaren 23ra arte egongo da zabalik. Estetika jakin baten inguruan teknika ezberdinak erabiliz egindako obrak ikusi ahal izango dira bertan: litografiak, akua-relak eta neurri handiko akrilikoak, besteak beste. Zumarragan, kultur etxeko Zelaia Aresti aretoan jarri du erakusketa, eta Urretxun, Juan de Lizarazu aretoan. Asteartetik zapatu-za, arratsaldez zabalduko dute, eta domeketan goiz eta arratsaldez. Astelehenetan itxita egongo da.

## Hasi dira olioak birziklatzeko inbutuak saltzen

Txankakua eta Barren Azoka merkatarik elkarrekin hasi dira olioak birziklatzeko inbutuak saltzen, eta herriko dendetan erosi daitezke. Bi mila inbutu salduko dituzte guztira, bakoitza euro batean. Elgoibar Berdea programaren helburuetako bat da herritarrak ingurumenarekin sentibilizatzea.





## Arrate Plazaola

**Donostiako Onkologia Zerbitzuko burua da Arrate Plazaola (Donostia,1951). Martitzenean, bularreko minbiziaren gaineko hitzaldia eskaini zuen Mendaron, Txaro Beobide Katxalin elkarteko presidentearekin batera. 50 urtez gorako emakumeei mamografiak egiteko kanpaina abiatu berri du Osakidetzak, eta kanpaina hori osatzeko, herriz herri dabilta egunotan Plazaola eta Beobide, bularreko minbizia garaz antzemateko azalpenak eta aholkuak ematen.**

Ainara Argoitia

## “Minbiziak ez du ezinbestean heriotza esan nahi”

**Diagnostikoan eta tratamenduan asko aurreratu da, baina hala ere, heriotzarekin lotzen dute askok minbizia. Hitz egin daiteke bizimenez eta itxaropenez minbiziari buruz?**

Bai, jakina. Azkeneko urteotan gauzak dezentente aldatu dira. Garbi dago kasu guztiak ezin direla guztiz sendatu, baina sendatu ez arren, minbizi kasu asko kronifikatzea lortu dugu, tratamendu egokia jarrita. Lehen esaten zen minbizia garatzen zuten lau lagunetik hiru hil egiten zirela eta bakarrak egiten zuela aurrera. Gaur egun, baina, lau kasutik bat hiltzen da. Lau horietatik beste bi sendatu egiten dira, eta bestea, kronifikatu. Minbiziak ez du ezinbestean heriotza esan nahi.

**Epe motzeko helburua gaixotasuna kroniko egitea da hortaz.**

Bai. Minbizidunei urte askoan bizitzeko aukera eskaintzea da helburua. Gaitza kontrolpean mantentzea, beste gorputz atal guztiak ondo izateko. Bizi-itxaropena luzatu behar da, baina jakina, bizi kalitatea hobetu ere bai. **Minbizi kasuak asko ugaritu diren ustea oso zabaldua dago. Egia da?**

Nik uste dut beti eregion direla minbizi kasuak, baina gertatzen dena da orain hobeto eza-gutzen dugula gaitza eta, zorionez, jendeak naturaltasunez hitz egiten duela minbiziaren inguruan. Batetik, diagnostiko goiztiarrak

egiteko bitarteko gehiago dauzkagu, eta bestetik, jendeak ez du gaitza lehen beste ezkututzen. Pauso handia da hori, tratamenduan egin diren aurrerapausoak bezain garrantzitsua.

**“Mamografiak egiteko deia jasotzen denean joan egin behar da. Oso garrantzitsua da”**

**Ez da gaixotasun kutsakor bat eta ez da inoiz jokaera jakin batzuei lotuta egon. ‘Zergaitik niri?’ galdetzen dute askok.**

*Zergaitik niri?* bada, hala egokitu delako. Minbizia ez da kanpotik hartutako zerbat. Gure gorputzak garatzen du, eta halaxe onartu behar dugu.

**Minbizi ugaritu edo ez, kasu gehiago diagnostikatzen dira behintzat. Bizi-itxaropena garai batean baino luzeagoa izateak badu zerikusirik?**

Bai, dudarik gabe. Minbiziak, gehienetan, lotura zuzena dauka zelulen biderketarekin.

Gorputzeko edozein ehunetan zelulek duten balazta edo freno aputzean sortzen da minbizia. Zelula horiek neurririk gabe biderkatzen hasten dira, eta mutazioak gertatzen dira. Zenbat eta biderketa gehiago egin, zelulak desberdinagoak izango dira. Eta zahartzen goazen heinean, mutazio horiek pilatuz joaten dira. Hala, gaur egungo bizi-itxaropenarekin, bi edo hiru minbizi klase ezberdin izan ditzakegu gure bizitzan zehar.

**Bularreko minbiziak hitz egingo duzu gaur [martitzenean]. Zeintzuk dira arrisku faktoreak?**

Nagusiena, emakumea izatea. Gizonezkoek ere izaten dute, baina bularreko minbizi garatzen dutenen %98 emakumezkoak dira. Tabakoa ere aipatzen da sarri. Tabakoa birketako eta eztarriko minbiziarekin lotzen da gehiago, hala ere. Beste minbizi motetan eragiten duenik ez dago garbi oraindik, baina saihestuta hobe, beti ere. Tratamendu hormonalekin lotura handiagoa dauka bularreko minbiziak. Urte askoan, menopausia aroan, estrogenoak eman zaizkie emakumei, menopausiako berotualdiak saihesteko eta hezurretarako ona zelakoan. Ederrago egoteko ere lagungarri zela esaten zen. Orain ikusi da, baina, uste okerra zela hori. Menopausia bizitzako beste ziklo fisiologiko

bat da, eta halaxe hartu behar dugu. Dietari buruz ere sarri hitz egiten da. Ez dago horren garbi dietak bularreko minbizian eragiten duenik, baina dieta garbia egitea aholkatzen dugu, bizimodu osasuntsua egitea denerako delako ona. Koipeak saihestu behar dira, proteina gutxiago jan, eta barazki, fruta eta zuntz edo fibra gehiago jan. Eguzkia hartzea ere zaindu behar dugu. Eguzkia neurritz kanpo hartzeak lotura zuzena du minbiziarekin. 11:00ak aurretik eta 17:00etatik gero hartu behar da eguzkia, azaleko minbiziak asko ugaritu direlako azkeneko urteotan.

**Zuk zeuk urteak daramatzazu onkologian lanean. Ez dakit gaixotasunak eragindako sufrimendura ohitzerik dagoen, baina minbizia diagnostikatzen duzue, nola esaten diozue gaixoari? Esatearen aldekoa zara?**

Bai, bai, esan egin behar zaio. Nola esan behar zaion pentsatu behar da, baina esan egin behar zaio. Esan ezean, ezingo diogu gero ganoraz azaldu zein tratamendu hartu behar duen. Abantaila bat daukagu guk: guregana iristen denerako diagnostikoa eginda egoten dela, eta hortaz, informazioa izaten duela gaixoak. Ikaratuta etortzen da, hori bai. Nik uste dut ahalik eta informazio gehien eman behar zaiola, berak entzun nahi duen arte, beti ere. Informazioak argia izan behar du, ulertzeko modukoa. Gertatzen da batzuetan pronostikoaren inguruan hitz egiteak ez duela zentzurik izaten, gaixoa ez delako jabetu oraindik zer daukan. Minbizi kasuetan, gainera, gaixoaren eta medikuaren arteko harremana oso estua izaten da, eta elkar ezagutu ahala, zer eta nola esan ikasten joaten gara geu ere.

**Bularreko minbiziak ez dio gaixoaren ongizate fisikoari bakarrik eragiten. Bizitzako arlo guztiei eragiten die. Zertan lagundu behar zaie?**

Gorputza zeharo aldatzen da, eta askotan sexologia bera ere bai. Hala, askori kosta egiten zaie onartzea. Lotsa sentitzen dute, beldurra, kezka... Min fisikoa arintzea lortu da. Tratamenduen eragina babesteko tratamenduak ere badira, eta nik uste dut askoz eramangarriagoa dela orain gaitza. Eragin psikologikoa, baina, handia da, eta gaixoak ezinbestekoa du inguruko laguntza aurrera egiteko.

**Tratamenduari dagokionean, zeintzuk dira aurrerapauso handienak?**

Tratamendu guztietan aurreratu da asko. Ki-

## “Garrantzitsua da hilero norberak bere bularra aztertzea, zerbait aldatu den ikusteko”

rurgia, esaterako, askoz txikiagoa da, eta gorputzari egiten zaion mina arinagoa da. Orain dela hamabost urte bularreko minbizia zuenari bularra eta besapeko ganglio guztiak kentzen zitzaizkion. Orain, aldiz, diagnostikoa azkarra bada, nahikoa da bularrean ebagi txiki bat egin eta besapeko ganglio bat –ganglio zelataria– kentzea. Autoestimuari ahalik eta gutxien eragitea oso garrantzitsua da.

**Mamografiak egiten oso berandu hasten direla salatzen dute askok. Zer diozu zuk?**

Mamografiak egiten 50 urtetik aurrera hasten badu bere arrazoia. Normalean, adin buelta horretan iristen da menopausia. Menopausika ez den emakumearen bularra oso dentsitate handikoa da, eta ondorioz, ez da ondo ikusten mamografia bidez. Hortaz, ez du diagnostiko moduan balio. 50 urtetik aurrera, berriz, hormonak galtzen doazen heinean, bularreko glandula txiki egiten da, eta aldameneko dena grasa bihurtzen da. Ondorioz, hobeto ikusten da. Dena den, ez dugu hortaz kezkatu beharrik, zerbait sumatzen duenari mamografia, ekografia, erresonantzia eta behar den guztia egingo diotelako. Mamografia edozeini egiteak, baina, ez luke zentzurik izango. Hori bai, mamografia egiteko sasoian daudenek ezin diote horri uko egin. Deitzen dutenean joan egin behar da, oso garrantzitsua da eta.

**Norbere gorputza ezagutzea ere oso garrantzitsua dela nabarmentzen duzue zuek, behin eta berriz. Noiz eta nola egin behar dugu hori?**

Hori da garrantzitsuena. Lau minbizitik bat gaixoak berak zerbait arraroa sumatu duela-ko antzematen da. Hori dela eta, oso ga-

rrantzitsua da norberak bere bularra nolako den jakitea. Gaztetan, mahats-mordo bat modukoa da, eta ikutzen denean koskorak sentitzen dira. Gerta daiteke norbait beldurtzea, baina gure bularra nolako den jakinez gero, jakingo dugu benetan noiz larritu behar garen. Zerbait aldatzen dela konturatzen bagara, dela beste kolore bat hartu duela, koskor gogorrago bat agertu dela edo beste edozer, medikuarengana jo behar da segituan. Ohitu behar gara hilekoa izan ostean bularra miatzen. [Katxalin bularreko minbiziadunen elkartearen web orrian daude azalpenak: [www.katxalin.org](http://www.katxalin.org)]



herritik kanpo




## paul hernandez

Paul Hernandez elgoibartarra iazko abuztuan joan zen Txilera (Hego Amerika). Santiago de Txile hiriburuan bizi da, eta bertan dihardu 3. mailako pedagogia ikasketak egiten. Orain dela bi hilabete lurrikara handi bat izan zen han, baina bera oporretan zegoen Bolivian.

“Esnatzean, leihoa zabaldu eta Andeak ikusten ditut elurtuta”

*Bolivia. Elurra dirudien arren, Uyuniko Gatzagan ateratako argazkia da.*



### Nolakoa da Txileko bizimodua?

Hego Ameriketako beste herrialdeekin konparatuta, Txile oso europarra da. Birziklapena eta ingurumenarekin zerikusia duten alorretan oraindik gehiago garatu behar dute, baina, oro har, Europako eredua jarraitzen dute. Era berean, Ipar Ameriketako gauzak ere badauzkate. Adibidez, orain dela gutxi izan ziren hemengo hauteskundeak, eta denak zeuden kalean banderekin, erotuta. Politika oso jarraitzen dutela esango nuke.

### Nolakoak dira bertako biztanleak?

Oso irekiak. Beti laguntzeko prest daude, eta kanpotarra zarela konturatzen direnean, are gehiago. Bizitza erritmoa bizkorra da hemen. Hiriko erdigunea jendez beteta egoten da beti, baina aldi berean, jendea oso lasaia da. Kaleko dendak, esate baterako, 11:00ak arte ez dituzte irekitzen, eta nahi dutenean ixten dituzte. Ez daukate ordutegi finkorik. Ni bizi naizen inguruan, ez behintzat.

### Santiago de Txilen bizi zara orain. Nolakoa da ingurune hori?

Hiriburu berezia da. Esnatzen naizene-



*Txile, Atakameko gatzaga.*



*Txileko Torres del Paine. Kontraste handiko ingurunea.*

an, leioa zabaldu eta Andeak ikusten ditut elurtuta. Bestalde, kontraste handiko hiria da, eta alde handia dago erdiguneko eraikin handien eta kanpoaldeko eraikin txiki eta koloretsuen artean.

**Lurrikarak izan dira Txilen azken hilabeteotan. Nola bizi izan dituzu?**

Orain dela bi hilabete egon zen lurrikara izugarri bat. Momentu hartan Bolivian nengoen, beraz ez nuen nabaritu. Nire etxeko bizilagunek eta hemengo lagunek bizi izan zuten, eta euren bizitzako esperientziarik txarrena izan dela diote. Dena mugitzen zela kontatu didate: eskailerak, ohea, lurra... eta gure residentziatik irten egin behar izan zuten goizaldeko 3:00etan. Residentziako hormak pitzatu egin ziren, eta logelako gauza guztiak apurtu ziren. Txileko beste leku batzuetan hildakoak ere izan ziren, eta oso gogorra izan zen. Hurrengo asteetan beste hainbat lurrikara txiki egon dira, baina gutxi irauten dute, eta ez dira hain arriskutsuak. Hemen ohiko kontua da lurra mugitzen sentitzea.

**Turismoa egiteko aukerarik izan al duzu?**

Bai, Txileko hainbat lekutan ibili naiz: Atakamako desertuan, Patagonian... Eta baita Bolivian eta Brasilen ere. Aukeratzekotan Atakama gustatu zait gehien. Horko jendea, bizimodua, klima... Oraindik ez dut aurkitu gustatzen ez zaidan lekurik.

**Erraz ohitu al zara Txileko bizimodura?**

Bai, egia esan hasieran gehiago kostatuko zitzaidala pentsatu nuen, baina egunak pasa ahala, oso gustura nago hemengo bizimodurekin. Gainera, ez dut sentitzen etxetik hain urrun nagoenik. Ez dut horrekin pentsatzen, eta horrela hobe da, gainera.

**Zerbaiten falta sentitzen duzu?**

Lagunak eta familia, baina bereziki janaria. Hemen oso ondo jaten da, baina ezin da Euskal Herriko janariarekin konparatu. Hemen ez daukat amak egindako janaririk, neuk egindakoak baizik. Hori alde batetik ondo dago, janari asko prestatzen ikasi dudalako, baina ez da berdina, inondik inora. Amak egindako janaria gehiago estimatzen ikasi dut. Hemengo biztanleek, baina, soberan ere badituzte gauzak, adibidez, kanpotarrekiko adeitasuna. Hemen ez daude ohitura kanpoko jendea ezagutzera, eta oso harrera ona egin didatela esan dezaket.

**Noiz itzuliko zara etxera?**

Hemengo klaseak bukatu ostean: uztailean. Egia esan ez daukat gogo handirik. Leku askotako jendea ezagutu dut, eta etxetik hain urrun egonda, oso harreman bereziak sortzen dira. Harreman estuak eraiki ditugu bizilagunon artean. Oso zaila izango da berriro guztiok elkartzea eta elkar ikustea. Pena pixka bat ere ematen dit.

**Pentsatu duzu denbora gehiago geratzea bertan?**

Argi daukat egunen batean bueltatuko naizela baina, momentuz ez dut pentsatu hemen denbora gehiago geratzerik. Esperientzia honek muga bat zeukala banekien; hasiera eta bukaera egunak dituen esperientzia da.

*Txile, Atakameko desertua.*



Urtebete da Patxi Lopez Eusko Jaurlaritzako lehendakari izendatu zutela.

## Zer iruditu zaizu Patxi Lopezen urtebeteko agintaldia?



**Monse Bao**  
41 urte, etxekoandrea

Nik neuk ez dut alde handirik igarri. Egia esateko, ez dut uste ezer aldatu denik. Politika ez dut larregi jarraitzen, baina diru laguntzak behintzat lehengoak dira. Herritarren beharretan arreta handiagoa jartzeko eskatuko nioke nik. Gizatasun handiagoa izatea, labur esanda.




**Aurora Rodriguez**  
56 urte, etxeko laguntzailea

Ez du lehendakari lana bete. Hobera beharrean okerrera egin dugu. Ezinduentzako behar moduko laguntzak eskatuko nizkieke. Nik alaba daukat ezindua, eta jasotzen dutenarekin ez dute ezertarako ere. Zer izango da ni ez nagoenean? Gizatasun handiagoa izan behar dute.



**Monica Silva**  
26 urte, erizain laguntzailea

Niretzako dena berdin dago. Nik neuk behintzat ez dut aldaketarik igarri. Gauza asko eskatuko nizkieke nik honi edo beste edozein lehendakari. Amatasun baimena luzatzea eta diru laguntzak handitzea, esaterako, bat-bateko laguntza horiek ez dutelako ezertarako balio.



**Nieves Fernandez**  
56 urte, etxekoandrea


Okerrera egin dugu, zalantzarik gabe. Niri Patxi Lopez ez zait bate-re gustatzen. Hemen bertako batek agindu behar du. Herriko arazoak hartu behar ditu aintzat, eta Madrilera eta hortik zehar irteteari laga. Bertako arazoak konpontzen ere badauka nahikoa lan.

Atxutxiamaiak aurten ere

# ATXUTXIAN TXITXIKA antolatu du.

- ☺ Noiz: Maiatzak 8, zapatua
- ☺ Norentzat: Haur Hezkuntzako haurrentzat (2-5 urte)
- ☺ Non: Plaza Handian
- ☺ Ordua: 11:30etik aurrera, dortsalak margotu, banderinak egin eta antxitxika egiteko prestaketak egingo ditugu

12:30ean Errosario kaletik abantatuko gara, gero San Bartolome kaletik bueltatzeko.

 atxutxiamaiak  haurrak gazteak ELGOIBARKO IZARRA





# IOSU GUINEA

Futbolaria

**Bederatzi denboraldi daramatza Iosu Guineak (Eibar, 1980) Haundin. Eibartik 20 urterekin ailegatu zen, eta Elgoibarren bizi da egun. “Elgoibartar peto-petoa naiz”, dio. Zapatuan denboraldiko partida garrantzitsuena jokatu du Haundik, Amorebietaren aurka. Bigarren sailkatua laugarrenaren kontra, eta play-offetarako sailkatzea jokoan.**

**“Meritua dauka aurrekontu handiagoa daukaten taldeekin parez pare lehiatzeak”**

**Taldeko jokalaria beterranoena zaitugu. Haundiko Etxebe edo...?**

*Jajaja.* Bai, kobratu gabe jokatzen dudalako diozu, ezta?

**Iazko denboraldikoa errepikatu da, eta play-off-etarako sailkatzeko urrats batera zaudete, inork uste ez zuenean. Zuek espero zenuten?**

Guk ere ez genuen espero. Ondo baino hobeto ezagutzen ditugu gure mugak. Horregatik, meritua dauka aurrekontu handiagoa daukaten taldeekin parez pare lehiatzeak. Eta are gehiago bi urte jarraian hor goian ibiltzeak. Gure helburua maila mantentzea izan da beti, eta hortik aurrera datorren guztia ongi-etorria izango da.

**Zein da, bada, Haundiren arrakastaren sekretua?**

Jokalarion artean daukagun giroa da gure indarra. Lana, lana eta lana, eta umilak izatea; beste sekreturik ez dago. Entrenatzailearen [Jagoba Arrasate] lana ere goiraipatzekoa da. Haundiko jokalaria izan-

dakoa da, ondo ezagutzen du kluba, eta daukan baliabideei ezin zaie etekin gehiago atera. Gainera, zazpi-zortzi jokalaria joan ziren iaz, titular ari zirenak horietako asko. Badakizu zer gertatzen den: norbait nabarmentzen bada, berehala etortzen dira eskaintzak kanpotik. Hirugarren Mailan jokalaria asko daude 1.000 eurotik gora kobratzen. Gauzak zailtzen ditu horrek, baina bistakoa denez, etorri berriak oso ondo moldatu dira taldera.

**Nola ikusten duzu Amorebietaren aurkako partida?**

Oso zaila. Bigarren postuan daude. *Play-off*-etara sailkatzea ziurtatuta dute, baina datorren urtean Errege Kopa jokatzeak aukera dute jokoan. Izan ere, liderrak, Realaren filialak, ezin du jokatu, eta, hortaz, bigarren geratzen denak eskuratuko du sari hori. Oso motibatuta irtingo dira, ez gu bezain beste baina. Benetako partida izango da, oso beroa; zale asko joaten diren zelaia baita. Elgoibarko zaleak joango

diren itxaropena daukagu.

**Mourinho ala Guardiola? Beste modu batera esanda: Irabaztea da garrantzitsuena ala nola irabazten ere inportantea da?**

Irabaztea da garrantzitsuena. Ondo jokatu ahal bada hobeto, jakina, baina bigarren maila batean dago hori, gure maila hauetan behintzat.

**Zein da Haundirekin bizi izan duzun momenturik onena?**

Asko izan dira: Hirugarren Mailara igo ginekoea, iazko denboraldia etabar, baina, batez ere, bederatzi urteotan ezagutu dudan jendearekin igarotako uneak azpimarratuko nituzke. Lagun on asko egiteko aukera eman dit Haundin jokatzeak, eta hori da garrantzitsuena, nire ustez. Giro aparta daukagu gure artean, eta gustura joaten naiz entrenatzera zein partidak jokatzerara. Era berean, kanpotik datozen guztiek ere horixe nabarmentzen dute: taldeko giroa. Behar denean gauzak serio hartzen dakien lagun koadrila bat gara.

## Eguraldi bustiaren erruz, uste baino parte-hartze txikiagoa izan da aurten Mendaroko mendi itzulian

Iaz 35 mendizale inguruk eman zioten Mendarori itzulia, eta aurten, bederatzik baino ez

**E**uriak eta bisutsak atzera bota zituen mendizale asko zapatuan, eta ondorioz, uste baino lagun gutxiago batu ziren Mendaroko mendi martxan. 7:30ean abiatu ziren Gaztetxe aurretik eguraldiari kontra egiten ausartu ziren bederatzik lagun: bost mendaroar eta lau elgoibartar. Iaz, 35 lagun inguru batu ziren.

37 kilometroko ibilbidea osatu behar zuten: Beraseta, Madariaga, Larraskanda, Garalutz, Lizarpe, Sarube, Sasiola, Ormolako Potzua, Arnoate, Plaza auzoa eta Gaztetxean amaitu. Bakarren batzuek, baina, bide luzeagoa egin zuten. Izan ere, antolatzaileek ibilbide osoa seinaleztatuta zuten arren, aurrekoen arrastoa galdu eta okerreko bidea hartu zuten parte hartzaileetako bik. Parte-hartzea uste baino txikiagoa izan arren, giro onean egin zuten ibilbidea mendizaleek. [www.elgoiBARRREN.net](http://www.elgoiBARRREN.net) atarian dituzue egun horretako argazki gehiago.



### Elgoibarko mendi martxa, hilaren 15ean

Mendarokoaren ostean, Elgoibarko mendi martxa egingo da maiatzaren 15ean, Morkaikok antolatuta. Plaza Handitik irtengo dira, 6:00etan. Karakatetik Irukurutzetara joango dira, eta Otxortian indarrak berreskuratu ostean, Azkaraterantz hartuko dute. Handik Urnobi-tza igoko dute, eta gainez gain ibili ostean, Altzolara jaitsiko dira. Ibilbidearen bigarren zatia ekingo diote: Bi-Oinera igo eta San Migelen bigarren atsedendaldia egingo dute. San Migelen indarrak hartuta, azken zatia ekingo diote han: Morkaiko eta Kalamua igo ostean Elgoibarrera jaitsiko dira. Urtero legez, mendi ibilaldia bukatu ostean, Merkatu Plazako azken solairuan batuko dira bazkaltzeko.

Izena emateko epea zabalik dago, eta antolatzaileek lehenbailehen apuntatzeko eskatu dute. Izena emateko bi aukera eman dituzte: Morkaikok Errosario kalean daukan egoitzara hurbiltzea, edo transferentzia egitea beheko kontu korronteetako batean, eta ondoren, ordainagiria bertara eramatea edo bidaltzea. Izena aldeztatik ematen duten bazkideek zazpi euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek, hamar. Izena mendi martxa egunean ematen duten bazkideek, bestalde, 12 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 15 euro.

Morkaikoren kontu korrontek: 2101 0036 69 0000380550 (Kutxa) edo 3035 0007 27 0071104751 (Euskadiko Kutxa).

## Hiru mendi irteeretarako bonoa eskainiko du Morkaiko Mendizale Elkarteak

Hiru mendi irteera luze eta erakargarri antolatu ditu Morkaiko Mendizale Elkarteak aurtengo urterako: Pikoe-tara (ekainak 12-13), Pirineo-tara (irailak 18-19) eta Gredosera (urriaren 9-10-11-12). Hori dela-eta, bono berezi bat sortu du. Bono horri esker, 80 euro aurrezteko aukera izango dute 25 urtez gorako mendizaleek, eta 110 euro, gazteagoek. Ekainaren 3a izango da bonoa eskuratzeko azken eguna.



### Maiatzaren 9an bukatuko da padel txapelketan izena emateko epea

Padel txapelketa antolatu du 40/15 Tenis Elkarteak. Txapelketa bi fasetan banatuko da, eta partida guztiak hiru setetara jokatu dira. Taldekako faserako zozketa maiatzaren 10ean egingo da, astelehenean, Elgoibarko Olaizaga kiroldegian, 20:00etan. Izena emateko ondorengo bi telefono zenbakietako batera deitu behar da, maiatzaren 9a baino lehen: 637 990 159 edo 696 577 872. Bikoteka, hogeitauko balioko du izenemateak.

# Markel Bergara eta Zuhaitz Gurrutxaga aurrez aurre, bigarren mailako derbian

Mailaz igotzea du helburu bat, eta mailari eustea besteak



Markel Bergara



Zuhaitz Gurrutxaga

**R**ealak eta Real Union taldeek jokatuko dute bihar bigarren mailako leuskal derbia. Bi elgoibartar izango dira aurrez aurre partida horretan: Markel Bergara eta Zuhaitz Gurrutxaga.

Bi taldeek behar dute garaipena, nork bere helburuari eusteko. Markelek lehen mailara igotzea dauka jokoan Realarekin, eta Zuhaitzek, berriz, bigarren mailari eustea Real Unioneekin.

Reala lehen postuan dago, 63 puntuarekin, baina Markelek esandakoaren arabera, "irabazi egin behar dugu". Zazpi partida geratzen dira Liga amaitzeko, eta 21 puntu daude jokoan. Markelek uste du hi-

ru partida irabazten badituzte, mailaz igotzeko helburua lortuko dutela. Real Unionen lagun asko dituela adierazi du jokalaritxuri-urdirak, eta haiek mailari eustea nahi duela gaineratu du.

Real Union, berriz, azken bigarren postuan dago, salbaziotik bi puntura. Realaren kontra jokatzea oso motibagarria dela dio Zuhaitzek, eta are gehiago, salbaziotik hain gertu egonda: "Azken sei hilabeteak mailari eustea lortuko dugula esaten jardundu, eta orain oso gertu gaude. Oso motibatuta gaude". Anoetan galdu egin zuen Real Unione, eta etxean irabazi egin behar dutela esan du sanmigeldarrak.

## Sanlo eskubaloia elkarteko 54 umek kirol asteburua izan dute Santoñan eta Castro Urdialesen



Alebin mailako 54 neska-mutiek Kantabria aldean pasatu dute asteburua, eskubaloian jokatzen. Zapatuan Santoñan jokatu zituzten partidak, Camargo, Zalla y Muskizeko taldeen kontra. Domekan, bestalde, zortzi partida jokatu zituzten, Castro Urdialesen. Sanloko arduradunen esanetan, asteburu "bikaina" izan da, eta eskerrak eman dizkiete Joseba Sagasta, Olatz Gil, Jon Sanchez, Lara Urain eta Nora Mugertzari, umeekin egin duten lanagatik.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 2 – Retuerto 1 (3. maila)  
 Elgoibar 3 – Anaitasuna 3 (Erreg. Pref.)  
 Euskalduna 2 – Elgoibar 3 (Jub.)  
 Elgoibar 5 – Tolosa 4 (Kad. A)  
 Arizmendi 0 – Elgoibar 3 (Kad. B)  
 Bergara 5 – Elgoibar 1 (Inf.)  
 Elgoibar 1 – Vasconia 2 (Txiki)  
 Bergara 4 – Elgoibar 3 (Aleb.)  
 Elgoibar 6 – Amaikak Bat 0 (Nesken Liga)

### ESKU PILOTA

#### Debarroko Txapelketa

Aretxabaleta 19 – Lagunak 22 (Nag.)  
 Bergara 22 – Lagunak 16 (Nag.)  
 Lagunak 22 – Arrasate 18 (Kad.)

#### Herriarteko txapelketa

Andoain 22 – Lagunak 7 (Kad.)  
 Andoain 22 – Lagunak 1 (Jub.)  
 Andoain 13 – Lagunak 22 (Nag.)

### ESKUBALOIA

Soraluce Bergara 32 – Alkorta Elg. 32 (Sen. mut.)  
 Aterpe Elg. 21 – Aloña Mendi 10 (Inf. nesk.)  
 Lauko Elg. 22 – Aloña Mendi 21 (Kad. nesk.)  
 Arrate 24 – Pneumax Elg. 23 (Kad. mut.)  
 IMH Elg. 19 – Bera Bera 17 (Kad. nsk.)  
 Amenabar Zatz 26 – Tecnifuelle Elg. 21 (Sen. mt.)

## AGENDA

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

#### Zapatua, 8

16:00 Concepto Createch – Aldaz

### FUTBOLA (Mintxetan)

#### Zapatua, 8

12:30 Elgoibar – Trintxerpe (Kad. A)  
 15:00 Elgoibar – Aretxabaleta (Kad. B)  
 17:00 Elgoibar – Zestoa (Erreg. Pref.)  
 19:00 Elgoibar – Anaitasuna (Jub.)

#### Domeka, 9

10:00 Elgoibar – Eibar (Futbol eskola)  
 10:00 Elgoibar – Eibar (Aleb.)  
 15:30 Elgoibar – Urola (Ohorezko inf.)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

#### Zapatua, 8

10:30 Ikus Elg. – Pulpo (Inf. nesk.)  
 11:45 Txarriiduna Elg. – Udarregi (Inf. mut.)  
 13:00 Bankoa Elg. – La Salle (Inf. mut.)  
 17:30 Tecnifuelle Elg. – Ereintza (Sen. nesk.)

#### Domeka, 9

9:30 Lauko Elg. – Zarautz (Kad. nesk.)  
 11:00 Pneumax Elg. – Pulpo (Kad. mut.)  
 12:30 IMH Elg. – Leitzarar (Kad. nesk.)

### ESKU PILOTA

#### Barxakua, 7

21:30 Lagunak – Andoain (Herriarteko txapelketa)

#### Domeka, 9

11:00 Lagunak A – Bergara (Nag.)

#### Martitzena, 11

20:00 Lagunak B – Eibar (Nag.)

# XIRI ANDONEGI

Eskultorea eta margolaria

**Xiri Andonegi mutrikuarrak margo erakusketa zabaldu du San Bartolome kaleko 33. zenbakian. Baina, margolaria baino gehiago, eskultorea da. Markinako Mogel parkeko eskulturak eta Mutrikuko Atxukale berak diseinatu eta egin ditu. Afizioa ofizio egitea lortu du, baina artisten bizimodua ez dela erraza aitortu du. Askok uste dutenaren kontra, margotzeak estresa eragiten diola adierazi du.**



## “Zoratuta egon behar da artearen munduan sartzeko”

**Hilaren 16ra arte egongo da ikusgai zure margoen erakusketa. Zer ikusiko dute bertaraten direnek?**

Azken urteotan eginiko margolanak dira asko. Espatula gogorren teknikarekin eginikoak dira gehienak, baina pintzelarekin margotutako lanak ere badaude. Jende gutxik erabiltzen du espatularen teknika. Elgoibarko bi koadro margotu ditut espreski erakusketa honetarako. Ez ditut gehiago egin, leku konkretu bateko koadroak ezin direlako edonon saldu. Horrez gain, eskultura lanen bideoa ere emango dut.

**Eskultura lanak ere egiten dituzu?**

Bai. Margolaria izan aurretik, eskultorea naiz. Markinako Mogel parkea eta Mutrikuko Atxukaleko lanak neureak dira. Obra handiak dira. Bakoitza egiten hiru urte eman nituen, eta, lan batetik bestera zazpi urteko aldea dago, gainera. Tarte horretan ere bizi egin behar da, eta margotzen ere badakidanez, margo lanak egiten hasi nintzen. Biak uztartzen ditut, profesional moduan segitzeko. Ez gara asko artista izatetik bizi garenok, eta alde horretatik pozik nago, baina gogorra da. Krisiak guri ere eragin digu, eta jendeak zerbait erosteari uzten dionean, honelakoak lagatzen ditu lehenengo. Garbigailua bi aldiz pentsatu gabe erosiko dute, baina koadroak erostea ez da bizitzeko beharrezkoa. Apur bat zoratuta egon behar da artearen munduan sartzeko. Arte irakasle izateko ere aukera badaukat, baina ez dut nahi. Desberdina da artea egiten jakitea eta artista izatea. Artista izateak sufrimendu asko eragiten du.

**Artea eginez estresa gutxitzen dela diote artista askok.**

Ni margotzen estresatu egiten naiz. Margotzen dudana jendeari gustatu egin behar zaio, eta horrek sekulako sufrimendua eragiten dit. Orain, adibidez, Ondarruko paisaje bat margotzeko eskatu didate, hiru zatitan. Zati bakoitzak bere aldetik ere esanahia izan behar du, eta hori lortzea ez da erraza. Tentsio handia sortzen dit besteen gustokoa izan behar duen koadroa margotzeak.

**Eta, zeure gustuko koadroak margotzeak?**

Niri expresionismo abstraktua gustatzen zait gehien, baina saltzeko zaila da. Gainera, arte merkatuarekin haserre nago: nahi dutena goraino igotzen dute, eta gustuko ez dutena, bajatu. Horrez gain, arte galerietan koadroen prezioa %40 garestitzen da. Nire koadro batek 150.000 pezeta balio baditu hemen, galeria baten 300.000 balio ditzake, eta hori ezin du edonork ordaindu.

**Noiz eta nola erabaki zenuen artista izatea?**

Betidanik gustatu izan zait eskultura. 14 urterekin eskola utzi behar izan nuen. Irakasle bat ikastetxetik bota egin zuten, eta bere alde egin nuelako, neuk ere eskola laga behar izan nuen. Orduan, goi mailako bitxitegi batean egin nuen lan bi urtez, eta handik, Debako arte tailerrera joan nintzen. Teknika asko ikasi nituen, baina han ez ziguten ordaintzen, eta lanean hasi beharra izan nuen. 19 urterekin Goitin hasi nintzen lanean, eta ondoren, Sigman egin nuen lan. 36 urterekin Unibertsitatean eman nuen izena, Arte Ederrak ikasteko. Bost urteko ikasketak egin nituen, eta neure lantegia jarri nuen, ondoren.

# Semana das letras galegas ospatuko dute gaurtik domekara arte

Galiziako produktuak dastatzeko aukera izango da

**G**aur arratsaldean egingo dute Semana das letras galegas jaien inaugurazioa, eta domekara arteko ekitaldiak antolatu ditu Elgoibarko Galiza Etxeak. 19:30ean botako dute jaiak hasteko txupinazoa, eta ondoren, Galiziako produktuak dastatzeko aukera izango da. Musika jartzeko arduraduna Super Fama orkestra izango da. Bihar, Haritz dantza taldearen eta Irixoko gaiteroen dantza ikuskizuna izango da Plaza Txikian. Gaueko ekintzen artean, ezin aipatu gabe utzi Queimada. Domekan meza eta bazkaria egingo dituzte. (Egitarau guztia agendan).



## Aitor Asenjok irabazi du auresku eta soinu zahar txapelketako ligaxka

Apirilaren 24an jokatu zuten auresku eta soinu zahar txapelketako ligaxkako azken kanporaketa Billabonan, eta Aitor Asenjo elgoibartarrak bigarren postua eskuratu zuen. Emaizta horrekin, ligaxka irabazi du dantzari elgoibartarrak, eta maiatzaren 15ean jokatu du finala, Errenterian. Nesken sailean, Ane Espillak hirugarren egin zuen Billabonan. Neskek ere maiatzaren 15ean jokatu dute finala, eta hauek dira han izango diren elgoibartarrak: Leire Morales, Saioa Marcos, Ane Espilla, Arantxa Ferreiro, Andrea Arregi, Alaitz Egaña eta Iraitz Gonzalez.

## Pilar Ikastetxearen itxierako ekitaldiak

Ikasturte hau izango da azkena Pilar Ikastetxean, eta hasi dira itxierako ekitaldiak prestatzen. Ikastetxeari buruzko erakusketa egingo dute Kultur Etxean, eta, ikastetxearen historiaren berri emateko bloga jarriko dute martxan ekainaren 1ean. Ekitaldi nagusia ekainaren 12rako antolatu dute: meza izango da San Bartolome parrokian, eta ondoren, bazkaria egingo dute. Interesatuak 15 euro ordaindu beharko dituzte, ikastetxeak Kutxan daukan kontu korrontean, ekainaren 1a baino lehen. Informazio gehiago eskuratzeko, 943 741 331 telefono zenbakira deitu.

## Gaur hasiko da Plazatik Gaztetxera txapelketa

Gaur hasiko da Plazatik Gaztetxera bertsolari gazteen txapelketa. Debako gaztetxean jokatu dute lehen kanporaketa, 22:30ean hasita. Datorren asteko saioa Sorluzen egingo dute; hilaren 21ean, Mendaron, eta maiatzaren 28an, Elgoibarko Gaztetxean. Saio bakoitzeko irabazlea zuzenean sailkatuko da finalera, eta puntuazio onena duten biek osatuko dute ekainaren 5ean Mutrikuko gaztetxean jokatu den finaleko seikotea.

## Elgoibarren batu ziren zapatuan Gotzon Garateren lagunak



Gotzon Garate idazle eta euskaltzale elgoibartarraren lagunek Elgoibarren egin dute aurtengo biltzarra. 1966. urtetik hutsik egin gabe elkartzen dira Gotzonen lagunak maiatzaren 1ean, eta, aurren, haren jaioterrian egitea erabaki dute. Euskal Herriko zazpi lurraldeetatik etorritako 60 bat lagun elkartu ziren guztira zapatuan. Gotzon Garateren jaiotzeko oroitarria bisitatu zuten, eta Angel Ugarteburuk idatzitako bertsoak abestu zituzten bertan. Ondoren, Udalak prestatu duen erakusketa bisitatu zuten Kultur Etxeko sotoan. Handik Idotorbe-San Pedrorra igo ziren, eta meza entzun ostean, bazkaria egin zuten. Datorren urteko bilkura Aramaion egingo dute, beti bezala, maiatzaren 1ean.

## LANA

### ESKAERA

- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **648 603 029**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **661 055 055**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **636 956 366**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ **686 578 228**
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko, sukaldari laguntzaile aritzeko... Interna edo orduka. ☎ **648 736 067**
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko, sukaldari laguntzaile aritzeko... Interna edo orduka. ☎ **638 899 860**
- Bikotea baserrietan nagusiak zaintzeko prest. ☎ **677 575 370 / 655 152 901**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo portalak garbitzeko prest. ☎ **677 575 370**
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **649 044 223**
- Neska gaztea eskaintzen da adineko jendea zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **666 771 701**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak edo haurrak zaintzeko eta portalak garbitzeko. ☎ **638 344 377 / 943 530 795**
- Gizon bat eskaintzen da sukaldari laguntzaile lanetarako, igeltsero lanetarako, banatzaile aritzeko edo pertsona nagusiak zaintzeko. ☎ **638 344 377**

- Neska gaztea eskaintzen da tabernako sukaldarian lane egiteko, garbiketa lanetarako edo haurrak eta nagusiak zaintzeko. ☎ **657 142 376**
- 23 urteko neska euskaldun bat eskaintzen da ostalaritzan lan egiteko, umeak zaintzeko edo etxeak garbitzeko. ☎ **696 794 107**
- Sukalde laguntzaile aritzeko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta portalak edo soziedadek garbitzeko prest. Edozein ordutan lan egiteko prest. ☎ **699 609 190**
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **618 163 061**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ **686 234 612**
- Neska, arratsalde edo gauetan lan egiteko prest. ☎ **646 821 678**

### ESKAITZA

- Jatetxe batek asteburueterako zerbitzaria behar du. ☎ **943 121 262**
- Zerbitzaria behar da. ☎ **686 617 439**

## ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK

### ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Pisua salgai, Basarten. 77m<sup>2</sup>. Eguzkitsua, eta egoera onean. Garajearekin. Aukera ona. ☎ **647 372 033**
- Etxea salgai Elgoibarko erdigunean. Eguzkitsua, eta logela guztiak kanpoaldera begira. Bi logela eta egongela. Berritua. 133.000 euro. ☎ **620 748 635**

- Etxea salgai. Eguzkitsua eta balkoiarekin. Berritua. Sukalde handia, bi logela eta egongela. Prezio onean. ☎ **699 209 844**
- Apartamentua daukat alokatzeko, Errosario kalean. Sukaldea, komunak, egongela, logela eta despentsa. ☎ **653 863 482**
- Etxe merkea salgai. Berritua, berogailuarekin, oso egoera onean eta bizitzera sartzeko prest. 19 milioi pezeta. ☎ **679 155 980**

## GARAJEAK ETA MOTORRA

- Karabana salgai. Egoera onean, oso ondo zainduta. Bost plaza, bi aterpe, bainu kimikoa, irauliezina. ☎ **679 729 194**
- Audi A4 2.5 TDI autoa salgai. Quattro, triptronic, larua, 17ko llantak, 165.000 kilometro, 2003 urtekoa. Egoera onean, merke. ☎ **651 819 582**
- Autokarabana merkea salgai. Benimar Europe 6000. ☎ **638 422 340**

## BESTELAKOAK

- PHmetroa galdu nuen asteazkenean, Ikastola inguruan. Uraren konduktibitatea neurtzeko aparatua da. Urdina da, eta hiru klabe ditu. Ordaintzeko prest nago. ☎ **696 856 485**
- Santa Ana kalean 1957ko argazki bat aurkitu dut. San Pedron aterata dago. Udaltzaingoa laga dut.

# ■ ZORIONAK



• Zorionak, **Markell** Dagoeneko, urte bat! Muxu handi bat etxekoan partez.



• Zorionak, **pototol** Urtebete jada! Muxu potolo bat aitatxo eta amatxoren partez.



• Zorionak, **Javi eta Merbxe**, bihar zuen ezkontza eguna delako. Koadrilako guztien partez, egun zoragarria pasa!



• Zorionak **sorgin pare** honi, asteazkenean 6 urte egin zituztelako. Ahizpa Nerea, eta familiako guztien partez.



• Zorionak, **Peru eta Intza**, maiatzaren 11n eta 15ean, 3 eta 6 urte egingo dituzuelako. Familiakoan partez.



• Zorionak, **printzesak** Ondo pasa zuen lehenengo jaunartze egunean. Tamara, Yeray, gurusoak eta familiako guztien partez,



• Zorionak, **aitatxo!** Aitziberren eta Axularren partez.



• Zorionak, **Alexander**, atzo urtebete egin zenuelako. Aiton-amonak eta osaba-izeben partez.



• Zorionak, **Kenia**, 29 urte egin dituzulako. Lagunen, bikotekidearen eta alabaren partez.



• Egun polita izan dezazula, **txepetxal** Mila eta bat muxutxo, maite zaitugun guztion partez.



• Zorionak, **Haizea**, domekan 6 urte egingo dituzulako. Aiton-amonak eta osaba-izeben partez.



• Zorionak, **Unai** bihar 6 urte beteko dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Martinen partez.



• Zorionak, **Iker**, asteazkean 8 urte egin zenituelako. Familiakoen, eta bereziki, Julen eta Asierren partez.



• Zorionak, **Iker**, zure 5. urtebetetzear. Ondo pasa eguna! Muxu handi bat Ane, Beñat eta Arianeren partez.



• Zorionak, **Olatz!** Ion, Asier, Unai, Garazi eta Elur lehengusuak; Aitor eta Uxue anai-arrebak; eta amona Ankoraren partez.



• Zorionak, **Maria**, gaur 8 urte egin dituzulako. Gurasoen eta anaia Jonen partez.



• Zorionak, **Maider**, bihar 10 urte egingo dituzulako. Familiakoen, eta bereziki, Arkaitz eta Eneritzen partez.



• Zorionak, **Izaro**, maiatzaren 9an 6 urte egingo dituzulako. Anaia Urkoren, gurasoen eta familiakoen partez.



• Zorionak, **Saioa** Bi urte haundi egin dituzu eta. Uxue, Jon eta Nahiaren partez.



• Zorionak, **Miren**, Mendaroko lagunen partez. Londrestik bueltatzeko zain egongo gara, behar den moduan ospatzeko.

## OSPAKIZUNAK



Aupa **Atxolin** txapeladunak!

## OSPAKIZUNAK



Aupa, **txapeladunak!** Jarraitu horrela.

## OKINDEGIA

9 domeka **EIZAGIRRE**

## FARMAZIAK

### 24 ORDUZ

- 7 Garitaonandia-Bidasolo
- 8 Etxeberria (Santa Ana)
- 9 Etxeberria (Santa Ana)
- 10 Fernandez
- 11 Yudego
- 12 Zabaleta
- 13 Etxeberria (Errosario
- 14 Ibañez

### Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)  
Tel: 943 751 638

### Fernandez

Herriko enparantza 4,  
Garagartza (MENDARO)  
Tel: 943 756 142

### Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
Tel: 943 751 384

## INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

[www.elgoiBAREN.net](http://www.elgoiBAREN.net)



### «En tierra hostil»

7, barixakua: 22:15  
8, zapatua: 19:00/22:15  
9, domeka: 19:00  
10, astelehena: 21:30

## 11 martitzena

### Ipuin kontalaria

17:00 'Beti Lagun'

Rosa Mari Matinezek kontatuko dizkie ipuinak umeei, Gotzon Garate liburutegian.

## 12 eguaztena

### Ikus-entzunezkoa

21:30 'Ama Dablam'

Iñigo Loiola mendizaleak Ama Dablam mendiari buruzko ikus-entzunezkoa eskainiko du. Morkaikok antolatuta, musika eskolako auditorioan.

## 13 eguena

### Irteera

8:15 Logroñora irteera

Jubilatuena Egoitzak antolatuta, Logroñora egingo dute irteera. Plaza Handitik irtengo da autobusa.

### Tailerra

18:00 Kartera tailerra

Kartera tailerra egingo dute gatzetxean. Doan izango da, eta egunean bertan han azaltzarekin nahikoa da. Informazio gehiago, 645 730 593 telefonoan.



### LUDEKAKO EKINTZAK

## MAIATZAREN 22an FAMILIA IRTEERA ARALARRERA

- Artzainen mendiko bizitza ezagutuko dugu.
- Familiako kide bakoitzak 3€ (barkide ez direnek 7€).
- Izena emateko epea, maiatzaren 14ra arte.
- Plaza mugatuak dira eta izenemate ordena errespetatuko da.
- Barkideek lehenetsia izango dute.



### GAZTELEKUKO EKINTZAK

#### BARIXAKUA 7

Topagunea 17:00

#### ZAPATUA 8

Dantza ikuskizuna 17:00

#### DOMEKA 9

Kanpo jolasak 17:00

#### MARTITZENA 11

Eskulanak, Gazte potoa 17:00

#### EGUAZTENA 12

Txoko pribatua 17:00

#### EGUENA 13

Pintxogintza 17:00

Zuz.: Kathryn Bigelow. Akt.: Jeremy Renner, Anthony Mackie, Brian Geraghty. 125 min.

Lehergailuak indargabetzeaz arduratzen den AEBetako brigada

bat hara eta hona dabil Bagdad. Edozein izan daiteke etsaia, eta edozein objektuk egin dezake eztanda. Oscar sarietan, filmik onenaren sarria irabazi zuen.





## SEMANA DAS LETRAS GALEGAS

### 7 BARIXAKUA

**19:30 Inaugurazioa**

Jaien inaugurazioa, Uxio Novoneyraren omenez.

**Jarraian, Galiziako**

**produktuen dastatzea**

Orenseko Alicia de Arcos pulpeiroaren laguntzaz.

**21:00 Dantzaldia**

Super Fama orkestrarekin.

**23:00 Dantzaldia**

Super Fama orkestrarekin.

### 8 ZAPATUA

**11:00 Galiziako produktuen dastatzea**

**13:00 Dantzaldia**

Dantza saioa eta vermut-a.

**18:30 Dantza ikuskizuna**

Haritz dantza taldeak eta Irixoko gaiteroen saioa.

**20:00 Galiziako produktuen dastatzea**

**20:00 Dantzaldia**

Super Fama orkestrarekin.

**23:00 Dantzaldia**

Super Fama orkestrarekin.

**00:00 Queimada**

Galiza Etxeko druidek prestatutako queimada dastatzea.

### 9 DOMEKA

**10:00 Meza**

Hildako bazkideen omenez, Santa Klaran.

**11:30 Kalejira**

Irixiko gaiteroekin.

**13:00 Dantza ikuskizuna**

Irixoko gaiteroek eskainiko dute.

**14:30 Bazkaria**

Galiza kultur etxean.



## Gure gomendioa

### 'Ama Dablam'

Maiatzak 12, 21:30ean musika eskolan

Iñigo Loiola mendizale debarrak Ama Dablam (6.856 metro) mendiari buruzko ikus-entzunezkoa eskainiko du. Morkaiko mendizale elkarteak antolatutako bosgarren bideo emanaldia izango da. Datorren astean, Arkaitz Irureta eta Iker Leonardo algoibartarrek mendi eskiari buruzko saioa eskainiko dute, eta hori izango da azkena.



# Zerikasi

## IKASTAROAK

### Excel aurreratua

Norentzat: Datuak grafikoki azaltzeko beharra dutenentzat  
 Hizkuntza: Gaztelaniaz  
 Hasiera data: 2010-05-10 / Bukaera data: 2010-05-20  
 Non: Elgoibarren  
 Izenemate bukaera: Kontsultatu

### Office XP (hastapena)

Norentzat: Interesatuentzat  
 Hizkuntza: Gaztelaniaz  
 Hasiera data: 2010-05-10 / Bukaera data: 2010-05-27  
 Non: Eibarren  
 Izenemate bukaera: Kontsultatu (943 208 444)

### Argazkilaritza digitala

Norentzat: Interesatuentzat  
 Hizkuntza: Gaztelaniaz  
 Hasiera data: 2010-05-15 / Bukaera data: 2010-05-16  
 Non: Altzolan  
 Izena emateko: 635 199 151 (Natalia)

### Itsaspeko argazkilaritza

Norentzat: Interesatuentzat  
 Hizkuntza: Gaztelaniaz  
 Hasiera data: 2010-05-28 / Bukaera data: 2010-05-30  
 Non: Mutrikun  
 Izena emateko: 943 195 088 / 617 333 003 (Javi)

### Sakonera gutxiko buzea

Norentzat: Igerian ondo egitea beharrezkoa da.  
 Hizkuntza: Gaztelaniaz  
 Hasiera data: 2010-06-07 / Bukaera data: 2010-07-16  
 Non: Mutrikun  
 Izena emateko: 943 195 088 / 617 333 003 (Javi)

### Nominen programa

Norentzat: Interesatuentzat  
 Hizkuntza: Gaztelaniaz  
 Hasiera data: 2010-05-31 / Bukaera data: 2010-06-16  
 Non: Eibarren  
 Izena emateko: Kontsultatu (943 208 444)

Informazio eta eskaintza zabalagoa:  
[www.zerikasi.com](http://www.zerikasi.com) edo 943 74 82 71

## Erretratu zaharra



**1966**

Aste honetako erretratua Jesus Mari Goikoetxeak bidalitakoa da. 1966. urtean Plaza Txikian koadrilen artean egiten zen txapelketako finalekoa da. Talde onek Zazpi Lagun zeukan izena. Gogora ditzagun argazkian azaltzen direnak:

**Zutik, ezkerrik eskumara:** Jesus Mari Goikoetxea, Julio Gabilondo, Jose Luis Oñederra, Jesus Maria Eguren, (aldamenetik begira) Agustin Sanchez (dentista). **Makurtuta:** Rafael Ibañez, Francisco Mendizabal eta Ramon Larrañaga

ESKERTZA

## PEDRO ZUBIZARRETA ASTIGARRAGA

2010eko apirilaren 23an hil zen, 80 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





## NTRA. SRA. DEL PILAR IKASTETXEAREN AGURRA

Ntra Sra del Pilar Ikastetxearen behin betiko itxiera dela eta, Errezabal Hezkuntza Elkarteko Guraso Batzordeak eta Irakasleagoak ekintza hauek antolatu ditu:

✦ **EKAINAREN 3TIK, 13RA:** Ntra Sra del Pilar Ikastetxeko "Argazkien Ikus-entzutekoa Kultur Etxean".

✦ **EKAINAREN 1ETIK AURRERANTZ:** "<http://pilarikastetxea.mifotoblog.com>"

Blog-a irekiko da Interneten Ikastetxearen historiaren berri emango diguten argazkiekin

✦ **EKAINAREN 12:** Ikastetxearen Agurraren Ekitaldia

13:00etan: Meza Parrokian

14:00etan: Bazkaria Ikastetxean Pilarreko familia eta lagun guzientzat. Bazkariaren prezioa 15€.

KUTXAN ordainduko da "Pilar Ikastetxea - A.E. Errezabal" Kontu Korrontean abonuaeren bidez.

Izen ematea maiatzaren 3tik, ekainaren 1era. Bazkalorduan abonua-igiria aurkeztuko da.

16:00etan: DJ-aren musika

**PILAR IKASTETXEKO IRAKASLEGOAK ETA GURASO ELKARTEAK,  
EKTALDI HAU OROIMENEAN GERATUKO DEN GIRO GOXOAN  
OSPATZERA GONBIDATZEN ZAITUZTE ELGOIBARTAR GUZTIOK.**

**Informazioa : 943 741 331 telefonoan**

hagarroan  
euskaraz  
bizitzeko  
eskuidea



maiatzak 15  
18:00etan  
golem zinemak



AEK · Berria · EHE · Euskal Idazleen Elkartea · Elkar · EMUN · IKA · Ikastolen  
Elkartea · Oinarriak · UEMA · Sortzen-Ikasbatuaz · Topagunea ...



# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 12-14-16 behea  
☎ / Faxe: 943 74 31 16  
[www.biena.es](http://www.biena.es)  
[info@biena.es](mailto:info@biena.es)

### García

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 943 74 32 38

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabilioia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea  
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxe: 943 74 73 12  
[www.fjlodoso.euskalnet.net](http://www.fjlodoso.euskalnet.net)

### Ulazia

Aroztegia eta enbalaiek  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2  
☎ 943 53 18 47  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,  
11 behea  
☎ 943 25 45 22

### Pagoaga

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 · MENDARO  
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

### Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05  
Faxe: 943 53 18 25

### Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



## Proiektu eta erreformak

### Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)  
☎ 943 744 055/943 744 019  
Arragueta, 12 behea (Eibar)  
☎ 943 200 698



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
MENDARO  
☎ 659 934 964

### Urzelai

Santa Ana, 12-14  
☎ 943 74 13 76/608 774 032



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04

### Lanusta

Etxe barruko erreformak  
☎ 636 375 323  
[www.lanusta.com](http://www.lanusta.com)



## Autoentzako tindatutako kristalak

### Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilioia  
☎ 943 74 30 94



## Sarrailagintza

### Giltzak

Arragueta, 3 (Eibar)  
☎ 943 701 391  
[www.giltzak.com](http://www.giltzak.com)



## Pinturak

### Biok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### Ipintza

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40  
☎ 607 74 04 40

### Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea  
☎ 943 74 88 43  
☎ 660 52 25 87



## Lorezaintza

### Pagoa loradenda

Nafarroa plaza 1  
☎ 943 74 01 89  
☎ 688 631 307

